


9



aisa

**AURKIBIDEA**

|   |    |
|---|----|
| <b>1. Sarrera</b>                               |    |
| 1. Irakaslearentzako oharrak.....               | 2  |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea.....              | 3  |
| 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak ..... | 4  |
| <b>2. Atazak</b>                                |    |
| <b>A Ataza:</b> Gaixo? .....                    | 5  |
| <b>B Ataza:</b> Juliana anbulatorioan.....      | 7  |
| <b>C Ataza:</b> Osasun zentroa .....            | 9  |
| <b>3. Eranskinak</b>                            |    |
| 1. Bideo-pasarteak .....                        | 11 |
| <b>4. Material osagarriak</b>                   |    |
| <b>B Ataza:</b> Juliana anbulatorioan           |    |
| 1. Ospitalean.....                              | 15 |

# 1. Sarrera

## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Unitate honetan, ikasleek gaixotasun, medikuntza-mota, osasun zentro eta istripuen ondorioz sortzen diren gaitzei buruz jarduteko aukera izango dute.

**A atazako** jarduera gehienetan mintzamina garatzen da. Izan ere, ikasleak gaixotasun eta medikuntza-mota ezagunez arituko dira, eta euren herrian agertzen diren gaixotasunak sendatzeko kontatuko dizkiote elkarri. Ondoren, gorputz-atal nagusien izenak ikasiko dituzte, nongo mina duten adierazteko gai izan daitezten. Hiztegiari dagokionez, lan handia izango dute gorputz-atalak ikasten.

**B atazan**, berriz, entzumen gailentzen da beste trebetasunen artean, bezeroaren eta medikuaren arteko elkarrizketa entzunez, informazioa bildu behar baitute ikasleek. Hala ere, zenbait jarduerak irakurmena lantzerantz behartzen dute.

**C atazan** ere pisu handiagoa du entzumenak. Ikasleek hainbat elkarrizketa (anbulatoriora hitzordua eskatzeko deitzen duten bezeroen eta erizainen artekoak) entzungo dituzte eta, informazioa jaso eta osatutakoan, elkarrizketa horiek antzeztea izango dute helburu.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena

(2. or.)

### A ATAZA: GAIXO?

- Gaixotasunen aurrean norberak dituen sendatzeko ohiturak trukatu
- Katarroaren sintoma nagusiak ezagutu
- Herrialde desberdinetako gaixotasunak eta sintomak trukatu
- Gorputz-atalei lotutako min nagusien berri eman

(5. or. irak. lib.) (60. or. ik. lib.)

**MINTZ/IRAK/IDAZ**

### B ATAZA: JULIANA ANBULATORIOAN

- Medikuari minen inguruko azalpenak eman
- Medikiak emandako instrukzio sinpleak ulertu

(7. or. irak. lib.) (64. or. ik. lib.)

**ENTZ/IRAK/IDAZ**

## OSAGARRIAK

### 1. OSPITALEAN

- Ospitaleko gutxieneko funtzionamendua ezagutzea.
- Minen inguruko deskribapenak ulertzea.  
(15. or. irak. lib.) (74. or. ik. lib.)

**ENTZ/IRAK/IDAZ**

### C ATAZA: OSASUN ZENTROA

- Osasun zentroetako profesionalak ezagutu
- Hitzordua eskatu

(9. or. irak. lib.) (68. or. ik. lib.)

**ENTZ/IRAK/MINTZ/IDAZ**

### 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

#### HELBURU NAGUSIA

- Lurralde ezberdinetako gaixotasunak eta sendabideak ezagutzea

#### LEXIKOA

- Aste osoa, belauna, besoa lotuta, bezeroa, bi aldiz, bihurritu, bizkarra, bularra, buruko mina, busti, datorren astean, doministikua, ebaki, egunean, erizaina, erre, eskumuturra, eztarria, eztarriko mina, eztula, gaixoa, gauean, hanka, handitu, hautsi, hotzikara, kontsulta, laranja-zukua, lepoa, medikua, mukiak, odol-analisiak, ohatila, orkatila, pilula, sabela, sendagaiak, sendagilea, sorbalda, sukarra, ukondoa, urdaila, xiringa, zirujaua...

#### MINTZAGAIAK

- Gaixotasunak (A)
- Sendabideak (A)
- 

#### ELKARRERAGINA

- Elkarrizketak antzeztea
- Medikuari minen inguruko azalpenak ematea

#### KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Gaixotasunen aurrean norberak dituen sendatzeko ohiturak trukatztea
- Katarroaren sintoma nagusiak ezagutzea
- Herralde desberdinetako gaixotasunak eta sintomak trukatztea
- Gorputz-atale lotutako min nagusien berri ematea
- Medikuari eta gaixoaren arteko ohiko elkarrizketa ezagutzea
- Gaixotasun desberdinak tratatzeko osasun zentroak ezagutzea
- Hitzordua eskatzea

#### GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Nongo mina duten azaltzea (*buruko mina*)

## 2. Atazak

### A ATAZA: GAIKO?

85'

#### Helburuak:

- Gaixotasunen aurrean norberak dituen sendatzeko ohiturak trukatzea.
- Katarroaren sintoma nagusiak ezagutzea.
- Herrialde desberdinetako gaixotasunak eta sintomak trukatzea.
- Gorputz-atalei lotutako min nagusien berri ematea.

#### Zertan den:

- Ikasleek sendabideez arituko dira, ezagutzen dituzten sendabideen eta euren herrietako ohituren berri elkarri emateko. Hasieran, katarroaren sintomak identifikatu eta sendatzeko aholkuak bereiziko dituzte; ondoren, euren herrietako gaixotasun nagusien izenak eta sintomak adierazten saiatuko dira. Bestalde, ikasleek erabiltzen dituzten erremedioen berri emango diote elkarri, telebistako iragarki batetik eta etxeko erremedio batetik abiatuta. Azkenik, gorputz-atalak eta bakoitzari dagozkion minak lotzen ahaleginduko dira.

#### PROZEDURA:

①

#### Atazaurrea

- Ikasleek liburuko sendabideen izenak irakurri eta bakoitzari dagokion irudiarekin lotuko dituzte. (5')

#### Zuzenketa-orria

|   |            |
|---|------------|
| 1 | AKUPUNTURA |
| 2 | OFIZIALA   |
| 3 | HOMEOPATIA |
| 4 | NATURISMOA |
| 5 | XAMANISMOA |

- Denen artean ezagun zaizkien bestelako sendabideekin koadroa osatuko dute, medikuntza izenaren ondoan erabiltzen den bitartekoa idatziz. (10')

#### Ataza

- Liburuko irudietan adierazita dituzten sintomen artean katarroari edo gripearri dagozkienak identifikatu eta idatzi egingo dituzte. Ondoren, mimikaren bidez adieraziko dizkiote elkarri idatzitako sintomak. (10')
- Hainbat ohituren artean katarroa sendatzeko egokiak aukeratu behar dituzte ikasleek, eta elkarri azalduko diote aukeratutakoa. (10')

#### Feedbacka

- Emaiezu katarroaren edo gripearren sintomen berri. (5')
- Katarroa edo gripea sendatzeko ekintza egokiei buruz galdetuko diezu, ondoko galdera erabiliz: (10')

Zuk: Zer egiten duzu ..... sendatzeko?  
Ikasleak: Lo egin, botikak hartu...

### Zuzenketa-orria

| SINTOMAK       | EKINTZA EGOKIAK    |
|----------------|--------------------|
| Eztarriko mina | Lo egin            |
| Eztula         | Edari beroak edan  |
| Hotzikara      | Bero jantzi        |
| Sukarra        | Sendagaiak hartu   |
| Mukiak         | Laranja-zukua edan |
| Doministikua   |                    |
| Buruko mina    |                    |

#### Atazaostea

- Ezagutzen dituzten gorputz-atalen izenak esateko eskatuko diezu ikasleei. Ondoren, irudia ikusi eta zenbaki bakoitzari dagokion izena osatu behar dute liburuan duten koadroan. (20')

### Zuzenketa-orria

|             |                 |
|-------------|-----------------|
| 1. burua    | 11. eskumuturra |
| 2. belarria | 12. eskua       |
| 3. ahoa     | 13. bizkarra    |
| 4. begia    | 14. sabela      |
| 5. lepoa    | 15. urdaila     |
| 6. eztarria | 16. ipurdia     |
| 7. sorbalda | 17. hanka       |
| 8. bularra  | 18. belauna     |
| 9. besoa    | 19. orkatila    |
| 10. ukondoa |                 |

#### Gramatika eta diskurtsoa

- Nongo mina duten azaltzeko erabiltzen den egitura ikusi eta gorputz-atalekin antzekoak sortuko dituzte. Azaldu beharko diezu hitzaren amaieraren arabera -KO edo -EKO erantsi behar diotela. (5')
- Galdera egin (*Nongo mina duzu? Zer gertatzen zaizu?*) eta ikasleek aukeratutako minarekin erantzuna osatuko dute. (10')

## Helburu nagusia:

- Medikuaren eta gaixoaren arteko ohiko elkarrizketa ezagutzea.

## Helburuak:

- Medikuari minen inguruko azalpenak ematea.
- Medikuak emandako instrukzio sinpleak ulertzea.

## Zertan den:

- Julianak istripu txiki bat izan du sukaldaritza-eskolan eta herriko anbulatorioko medikuari azaldu dio gertatutakoa. Ikasleek elkarrizketa entzunda, anbulatorioan jarraitutako pausoak jasoko dituzte.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea

- Ohiko istripu batzuen irudiak oinarritzat hartuz, argazkietako gorputz-atal bakoitzari zer gertatu zaion esango dute ikasleek. (10')

#### Zuzenketa-orria

|          |           |
|----------|-----------|
| hanka    | ERRE      |
| belauna  | HANDITU   |
| eskua    | EBAKI     |
| besoa    | HAUTSI    |
| orkatila | BIHURRITU |

#### Ataza

- Ikasleek Julianaren eta medikuaren arteko elkarrizketa lehen zatia (1. **bideo-pasarte**) entzungo dute eta zerrendako istripuetatik Julianari zer gertatu zaion aukeratuko. (5')
- Elkarrizketa beraren bigarren zatia (2. **bideo-pasarte**) entzundakoan, medikuak agindutakoak zerrendan markatuko dituzte. (10')

#### Feedbacka

- Ikasle bakoitzak ikaskidearekin alderatuko du egindakoa. (10')
- "Zer egin behar du Julianak?" galdera egingo diezu ikasleei, idatzitakoa esan dezaten. (10')

#### Zuzenketa-orria

|                                  |
|----------------------------------|
| Julianak eskua bihurritu du      |
| Pilulak hartu                    |
| Krema eman                       |
| Bendarekin lotu                  |
| Dutxan eskua ez busti            |
| Kontsultara datorren astean joan |

|                     |                  |
|---------------------|------------------|
| Pilula bat hartu    | bi aldiz egunean |
| Kontsultara joan    | datarren astean  |
| Besoa lotuta eraman | aste osoa        |
| Krema eman          | gauean           |

### Atazaostea

- Ikasleek telebistako iragarkia<sup>1</sup> (**3. bideo-pasarte**) ikusita, xarabea zertarako den esango dute. **(5')**
- Irudietako botikak dagokien erabilera-orriarekin lotuko dute. **(10')**

### Zuzenketa-orria

| IRUDIA | ERABILERA-ORRIA |
|--------|-----------------|
| 1      | Calmacid        |
| 2      | Kolpex          |
| 3      | Frentol         |
| 4      | Aspertilor      |
| 5      | Sumitol         |
| 6      | Tantum          |

**IRAK. LIB. 4.1.**

**IK. LIB. 4.1.**

*Ospitalean ataza osagarriak ospitaleko gutxieneko funtzionamendua ezagutzeko aukera ematen du.*

<sup>1</sup>  3253 Tusol ez-tul lehorren aurka. EITB

### Helburu nagusia:

- Gaixotasun desberdinak tratatzeko osasun zentroak ezagutzea.

### Helburuak:

- Osasun zentroetako profesionalak ezagutzea.
- Hitzordua eskatzea.

### Zertan den:

- Anbulatoriora hitzordua eskatzeko deitu duten pertsonen buruzko informazioa hartu beharko dute ikasleek. Antzeko egoera errepikatuz, elkarrizketa osatu eta antzeztu egin beharko dute. Azkenik, ikasleen inguruko osasun zentro publiko eta pribatuekin zerrenda bat osatuko dugu.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea

- Osakidetzako txartela eskatzeko formularioa, mediku-txartela eta zentro baten errotulua dituzte ikasleek liburuan irudietan. Galdetu ea Osakidetzaren berri ote duten: EAEko osasun zerbitzu publikoa dela, txartela eskuratzeko eskubidea ere badutela, eskatu nahi izanez gero errolda agiria beharrezkoa dela... **(10')**
- Osasun zentro baten ohiko medikuak eta irudiak lotzen saiatuko dira ikasleak. **(5')**

#### Zuzenketa-orria

|   |                   |
|---|-------------------|
| 4 | Pediatra          |
| 6 | Analista          |
| 5 | Erradiologoa      |
| 1 | Familiako medikua |
| 3 | Ginekologoa       |
| 2 | Traumatologoa     |

#### Ataza

- Ikasleek jendea medikuarenerako hitzordua eskatzen **(4. bideo-pasartea)** entzungo dute. **(10')**
- Liburuko koadroa beteko dute eskatzen diren datuekin: bakoitzak zein medikurekin nahi duen kontsulta, zertarako, zein egun eta zein orduan eman dioten. **(5')**

#### Feedbacka

- Ikaskidearekin alderatuko dute osatutako taula. **(10')**
- Antzeko egoera errepikatuko dute, binaka, bakoitzak erizainaren edo bezeroaren rola hartuz. **(10')**

### Zuzenketa-orria

|               |                   |                   |            |       |
|---------------|-------------------|-------------------|------------|-------|
| Koldo Artetxe | Erradiologoa      | Erradiografia     | Asteartea  | 11:05 |
| Omar Arozena  | Analista          | Odol analisiak    | Ostirala   | 07:45 |
| Marisa Merino | Familiako medikua | Baja eskatu       | Osteguna   | 16:30 |
| Julio Jimenez | Pediatra          | Umearen azterketa | Asteazkena | 10:00 |
| Miren Leunda  | Ginekologoa       | Ekografia         | Astelehena | 12:50 |

#### Atazaostea

- Herria edo auzoa oinarritzat hartuta, osasun zentro publiko eta pribatuen izenak idatziko dituzte eta bakoitzean zein mediku mota aurki daitekeen. **(10')**

## 3. Eranskinak

### B ATAZA: JULIANA ANBULATORIOAN

#### 1. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena: 01' 00''**

(lehen zatia)

- JULIANA: Egun on! Tapia doktorearekin egon nahi dut.  
IDAZKARIA: Oraintxe bertan?  
JULIANA : Bai mesedez, eskuan min handia daukat-eta.  
IDAZKARIA: Ederki. Zure izena, mesedez?  
JULIANA: Juliana Serrano Frias.  
IDAZKARIA: Kontsulta pasatzen ari da, baina laster geldituko da libre.  
JULIANA: Zein da bere kontsulta?  
IDAZKARIA: Begiratu panel horretan.  
JULIANA: Mila esker.  
JULIANA: Hemen itxoin behar al dut Tapia doktorearekin egoteko?  
PERTSONA 1: Bai, hementxe da.  
JULIANA: Eskerrik asko.  
PERTSONA 1: Ez horregatik  
DOKTOREA: Juliana Serrano Frias... zu al zara?  
JULIANA: Bai, ni naiz.  
DOKTOREA: Pasa, mesedez. Eseri. Zer gertatzen zaizu?  
JULIANA: Akademian eskua bihurritu dut.  
DOKTOREA: Min handia al daukazu?  
JULIANA: Bai, ezin dut ondo mugitu.  
DOKTOREA: Erakutsi eskua... Bai, handituta daukazu, baina ez dago hautsita.

#### 2. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena: 1' 15''**

(bigarren zatia)

- DOKTOREA: Begira, sendabide bat jarriko dizut. Pilula bat hartuko duzu bi aldiz egunean: bat goizean, gosalduta ondoren, eta bestea gauean, afalduta ondoren.  
JULIANA: Ondo. Bat goizean eta beste bat gauean.  
DOKTOREA: Crema hau ere egunero emango duzu, gauean, oheratu baino lehen. Oso ondo joango zaizu, ikusiko duzu. Crema eman eta gero, benda elastiko bat jarriko duzu eskumuturrean, presio pixka bat eginez, gehiegi ez mugitzeko. Ulertu duzu?  
JULIANA: Bai, ulertu dut.  
DOKTOREA: Aste osoan lotuta eramango duzu eta datorren astean nire kontsultara etorriko zara berriro. Orain, utzidazu zure txartela errezetak egiteko.  
JULIANA: Bai, hementxe duzu.  
DOKTOREA: Listo. Tori. A!, eta dutxan ez busti eskua, plastiko batekin edo ondo estalita eduki.  
JULIANA: Bale. Orduan, datorren astera arte, ezta?  
DOKTOREA: Bai, eta arazoren bat baduzu, deitu edo berriro etorri.  
JULIANA: Oso ondo. Agur!

#### 3. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena: 0' 23''**

Iragarkia: (DB 3253)

*Frenatuz* ez tul lehorraren aurka

## C ATAZA: OSASUN ZENTROA

### 4. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena: 2' 15''**

Hitzordua eskatzen

1.

ERIZAINA: Anbulatorioa, esan?

GAIXOA: Egun on! Hitzordua eskatu nahi dut erradiografia bat egiteko.

ERIZAINA: Erradiologoa goizez bakarrik egoten da. Ondo etortzen zaizu?

GAIXOA: Bai, zein egunetan?

ERIZAINA: Asteartean, goizeko 11ak eta bostean.

GAIXOA: Oso ondo.

ERIZAINA: Zure izena, mesedez?

GAIXOA: Koldo Artetxe.

ERIZAINA: Ederki, ongi da. Orduan, asteartera arte.

GAIXOA: Eskerrik asko. Agur!

2.

ERIZAINA: Anbulatorioa, esan?

GAIXOA: Egun on! Odol-analisiak egiteko ordua emango al didazu, mesedez?

ERIZAINA: Bihar ostirala, goizeko 8ak laurden gutxitan, ondo?

GAIXOA: Bai, ondo dago.

ERIZAINA: Zure izena, mesedez?

GAIXOA: Omar Arozena.

ERIZAINA: Listo!

GAIXOA: Eskerrik asko.

ERIZAINA: Ez horregatik. Agur!

3.

ERIZAINA: Anbulatorioa, esan?

GAIXOA: Egun on! Baja bat eskatzeko norekin egon behar dut?

ERIZAINA: Zure familiako medikuarekin. Nor da?

GAIXOA: Urdanpilleta doktorea.

ERIZAINA: Eta noiz nahi duzu, goizez ala arratsalde?

GAIXOA: Arratsalde.

ERIZAINA: Ostegunean arratsaldeko 4 eta erdietan ondo?

GAIXOA: Bai, ondo.

ERIZAINA: Zure izena, mesedez?

GAIXOA: Marisa Merino.

ERIZAINA: Oso ondo.

GAIXOA: Eskerrik asko. Agur!

4.

ERIZAINA: Anbulatorioa, esan?

GAIXOA: Egun on! Pediatrarekin ordua emango al didazu?

ERIZAINA: Presazkoa al da?

GAIXOA: Ez, umearen azterketa egiteko da, bakarrik.

ERIZAINA: Orduan asteazkenean ondo?

GAIXOA: Bai, goizez ala arratsalde?

ERIZAINA: Goizeko 10etan.

GAIXOA: Eskerrik asko.

ERIZAINA: Zein da haurraren izena?

GAIXOA: Julio Jimenez.

ERIZAINA: Bale. Agur!

GAIXOA: Eskerrik asko. Agur!

5.

ERIZAINA: Anbulatorioa, esan?

GAIXOA: Egun on! Ginekologoak kontsulta al du gaur?

ERIZAINA: Zertarako?

GAIXOA: Ekografia bat egiteko.

ERIZAINA: Ez, ekografiak astelehen eta asteazkenetan egiten ditu. Noiz komeni zaizu?

GAIXOA: Astelehenean.

ERIZAINA: Ordu bata hamar gutxitan libre dago. Ondo iruditzen al zaizu ordu hori?

GAIXOA: Bai, ondo da. Eskerrik asko.

ERIZAINA: Zein da zure izena?

GAIXOA: Miren Leunda.

ERIZAINA: Bale, ba. Astelehenera arte, orduan

GAIXOA: : Bai, agur!

# B ATAZA: JULIANA ANBULATORIOAN

## 1. OSPITALEAN

### 5. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena: 5' 47''**

Ospitalean. *BAI HORIXE!* 7

ERIZAINA: Istripua, ala?  
MEDIKUA 1: Bai, istripua: autopistan, Durangon.  
ERIZAINA: Nola dago?  
MEDIKUA 1: Gaizki.  
ERIZAINA: A: Zer du?  
MEDIKUA 1: Kolpe handi bat buruan eta hanka hautsita.  
MEDIKUA 2: Dena prest?  
ERIZAINA: Bai, hemen duzu bata.  
ERIZAINA: Gabon!  
GAIXO 1: Kaixo!  
ERIZAINA: Hemen duzu sendagilea.  
MEDIKUA 2: Honek zer du?  
ERIZAINA: Besoa hautsita.  
MEDIKUA 2: Zer moduz beso hori?  
GAIXO 1: Tira.  
MEDIKUA 2: Baduzu minik?  
GAIXO 1: Min handirik ez.  
MEDIKUA 2: Ederki.  
MEDIKUA 2: Eta horrek? Zer du horrek?  
ERIZAINA: Buruan traumatismoa eta hanka hautsita.  
MEDIKUA 2: Lotan dago ezta?  
ERIZAINA: Bai, anestesia oraindik.  
GAIXO 1: Aizu, eta afaria?  
ERIZAINA: Berehala.  
ERIZAINA: Egun on! Zer moduz zaudete?  
GAIXO 1: Gaizki.  
ERIZAINA: Zer duzu ba?  
GAIXO 1: Hau.  
ERIZAINA: Hori ez da ezer. Hemen duzue gosaria.  
ERIZAINA: Laranja-zumoa, gailetak eta kafesnea.  
GAIXO 1: Berriz ere botika hori! Uf!  
ERIZAINA: Hartu botika.  
GAIXO 1: Nik ez dut gogorik.  
ERIZAINA: Hartu, hartu.  
ERIZAINA: Eta zu, zer moduz?  
GAIXO 2: Buruan ez dut minik, baina hanka gaizki samar.  
ERIZAINA: Ea buru hori...  
GAIXO 1: Aizu, orinala non dago?  
ERIZAINA: Ohe azpian duzu.  
ERIZAINA: Ondo dago. Oso aurpegi ona duzu. Orain, gosaldtu, eta gero botika hartu.  
GAIXO 2: Aizu, baduzu tabakorik?  
GAIXO 1: Nik ez, baina Margarik bai.  
GAIXO 2: Nork?  
GAIXO 1: Erizainak.  
ERIZAINA: Kontuz, hemen tabakorik ez.

## 4. Material osagarriak

### B ATAZA: JULIANA ANBULATORIOAN

#### 1. OSPITALEAN

##### Helburuak:

- Ospitaleko gutxieneko funtzionamendua ezagutzea.
- Minen inguruko deskribapenak ulertzea.

##### Zertan den:

- Ikasleek, hainbat gaixoren egoera ikusita, zer gertatzen zaien aukeratuko dute.

##### PROZEDURA:

### 1

##### Atazaurrea

- Ospitalearekin zerikusia duten elementuekin bikoteak osatuko dituzte irudiak erabiliz. (5')

##### Zuzenketa-orria

|                 |   |          |   |
|-----------------|---|----------|---|
| Anbulantzia     | 1 | Ohatila  | B |
| Operazio-gela   | 2 | Zirujaua | D |
| Xiringa         | 3 | Erizaina | E |
| Oxigeno-maskara | 4 | Gaixoa   | A |
| Fonendoskopioa  | 5 | Medikua  | C |

##### Ataza

- Ikasleek ospitaleko irudiak<sup>2</sup> (5. bideo-pasarte) ikusi ondoren, liburuan dituzten gaixoen inguruko zehaztapenak irakurriko dituzte. (10')
- Pertsonaien argazkiekin lotuko dute ezaugarri bakoitza. (5')

##### Feedbacka

- Emaiezu erantzun zuzenaren berri. (5')

##### Zuzenketa-orria

|                       |  |
|-----------------------|--|
| Anbulantziako medikua | <ul style="list-style-type: none"><li>➤ Istripua izan du</li><li>➤ Gaizki dago</li><li>➤ Kolpe handia du buruan eta hanka hautsita</li></ul> |
| Gaixoa 1              | <ul style="list-style-type: none"><li>➤ Besoa hautsita dauka</li><li>➤ Min handirik ez du</li></ul>  |
| Gaixoa 2              | <ul style="list-style-type: none"><li>➤ Buruan traumatismoa eta hanka hautsita</li><li>➤ Anestesia du</li><li>➤ Hanka gaizki dauka</li></ul> |

<sup>2</sup> BAI HORIXE! 7

## **EGILEAK**

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)  
Partehartzaileak: **Ainhoa Gaintza** (Planiker)  
**Belen Benitez** (Planiker)  
Errealizazio didaktikoa: **Felix Sainz** (HABEko teknikaria)

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Planiker enpresari materialgintza-  
-proiektu honetan parte hartzeagatik.

Gure esker ona ondoren aipatzen diren hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman  
digutelako.

DB 3253 *Frenatus ez tul lehorraren aurka*. EITB  
Ospitalean. *Bai Horixe!* 7